

Frutagintza eta marmelada

Eskolan egiteko ariketak





Bisita egin baino lehen

Frutaz beteriko bizitza







Laster fruta arbola ezagutu eta fruta nola kontserbatu daitekeen ikastera joango zara. Orduan frutarekin marmelada egingo duzu, baina eguneroko bizitzan fruta modu ezberdinetan aurki dezakegu, ezta?.

Aipa itzazu frutak non edo nola goza ditzakezun. Gogoratu ez dugula jateko bakarrik erabiltzen eta estutu burua ahal dituzun erantzun gehien emateko!

- | | |
|---------------------------------------------------------------|----------------------------------------------------------------------|
| <input type="checkbox"/> xaboi, gel eta txanpuetan..... | <input type="checkbox"/> aromaterapian..... |
| <input type="checkbox"/> kolonietan..... | <input type="checkbox"/> inaladoreetan..... |
| <input type="checkbox"/> konfiteritzan eta pastelgintzan..... | <input type="checkbox"/> ambientadoreetan..... |
| <input type="checkbox"/> dekoraziorako..... | <input type="checkbox"/> jateko: gordinik, egosita, frijituta,..... |
| <input type="checkbox"/> jogurtetan..... | <input type="checkbox"/> purean, lurrinetan egina, konfitatuta,..... |
| <input type="checkbox"/> aire-freskagarrietan..... | <input type="checkbox"/> gelatinetan, izozkietan,..... |

Zein da lehena, arrautza ala oiloa, fruitua ala hazia?

Ordena itzazu irudi hauek eta azaldu pausu bakoitzean gertatzen dena:

<p>Hazi eta fruituaren eraketa: obulu ernaldua hazi bihurtzen da (enbrioia barruan du) eta obulutegia fruituan.</p> <p>4 </p>	<p>Polen eraketa: loreak polen aleak (mikroga-metofito arrak) ekoizten ditu anteratan.</p> <p>1 </p>	<p>Hazien eta fruituaren heltzea.</p> <p>5 </p>
<p>Polinizazioa: intsektuak polena beste lore baten ginezeora garraiatzen du.</p> <p>2 </p>	<p>Obuluaren Ernalketa: polen aleak hodi polinikoa eratzen du eta honen bidez obulutegiaren barruraino iristen da. Bertan gametofito emea dago eta ernalduta egiten du.</p> <p>3 </p>	<p>Fruitua eta haziak egoera egokia aurkitzen badu, landare berri bat osotuko du (esporofito).</p> <p>6 </p>



Zer gertatuko litzateke intsektuak desagertuko balira?

Einsteinek iragarri zuen erleak desagertuko balira, gizakia 4 urtetan desagertuko litzatekeela. Erleak bezalako intsektu askok polinizazioa egiten dute, horri esker landareak ugaltzeko daitezke, intsektu ezeean landareak murriztuko litzateke, haizea eta esporez ugaltzen diren landareak bakarri garatuko lirateke. Bestalde, intsektuak beste animalia askoren elikagaiak dira, gogoratu: satitsuak, hartz inurrijaleak, okilak eta txori ugari. Intsektu asko, gehienak eulien familiakoek, materia organikoa deskonposatzeaz arduratzen dira hildako materiala deskonposatzen dute (egurra eta hildakoen gorputzak) beraz nahiz batzuetan oso desatseginak iruditu, behar beharrezkoak dira ekosistema orekatua izateko.


Ezagutzen al duzu, intsektuez gain, hazi garraiatzeko beste modurik?

Begiratu irudiak eta esan nola uste duzun garraiatuko direla hazi horiek:

Uraren bitartez

Haizearen bitartez

Beste animalien bitartez






Artistaren txokoa

Egingo duzun bisitan besteak beste, sagarra eta kiwiarekin marmelada egingo duzu.

✎ Imajinazio pixka-bat bota eta egin ezazu etiketa polit bat poteari jartzeko, neurri hauek kontuan hartuta:



Bisita egin eta gero

✎ Gurutzegramak

1. Azukre kanaberatik lortutako likido lodia, azukrearen osagaia, bitamina eta mineralak ematen dizkiona.
2. Marmelada egiteko fruta zapaltzeko erabilitako sagarrondo egurrez egindako makila.
3. Kiwiak ugari duen propietatea.
4. Loreak duen hauts ernalgarrria.
5. Sagarrarekin egiten den edari alkoholduna.
6. Fruta-arbolen barietatea aldatuz, etekina edo kalitatea hobetzeko landare baten orpoan edo adar nagusian itsasten den beste adartxoa.
7. Landareen ernaltze prozesua.
8. Hazia duen landareen zati jangarria.

								6.					
8. F R U I T U A								X					
4. P O L E N A								R					
								T					
								O				A	
3. B I T A M I N A												I	
								E				O	
7. P O L I N I Z A Z								I O A					
								A				S	
								Z				P	
5. S A G A R D O A												2.	



Denak frutak dira, baina...

Sailka itzazu fruitu hauek ondorengo irizpideen arabera:

Sagarra	Gaztaina
Masusta	Muxika
Intxaurra	Anana
Marrubia	Udarea
Ahabia	Banana
Meloia	Mahatsa
Kiwi	Laranja

Landare motaren arabera:

- Zuhaitzak: **sagarra, intxaurra, laranja, gaztaina, muxika, banana, udarea**
- Zuhaixkak: **kiwia, mahatsa, ahabia, masusta**.....
- Landare txikiak: **anana, marrubia, meloia**.....

Garaiaren arabera:

- Negukoak: **laranja, anana, gaztaina**.....
- Udaberrikoak: **marrubia**.....
- Udakoak: **banana, ahabia, meloia, masusta**.....
- Udazkenekoak: **gaztaina, mahatsa, anana, sagarra, intxaurra**.....

Jatorriaren arabera:

- Kanpokoak **anana, platanoa, kiwia, meloia**.....
- Bertakoak **sagarra, udarea, intxaurra, marrubia, muxika, mahatsa, masusta**.....

***Kontuan hartu behar da, barietateak daudela eta adibidez sagar edo udare guztiek ez dutela ez jatorri bera ezta ere heltzeko garai bera.**



Zuhaitz naturalaren forma eta ikusi dituzun arbolena berdina al da? Zer uste duzu gertatu dela?

 *Marraztu fruta arbolaren forma:*



Fruta arbolak zaindu eta marmelada egiten duen baserritarra ezagutu duzu, baina badira eztiak, gazta, barazkiak, ogia, abarkak, lore eta landareak, ekoiztu eta azokara saltzera joaten diren beste batzuk ere, ezagutzen al dituzu?

“Baserrria, natur eskola bizia” programak baserriak, baserritarrak, beraien tailerrak, baratzak, produktuak, ... ezagutzeko aukera ematen dizu, eta gainera beraiekin ikasi eta zu zeuk ere kandelak, abarkak, ogia eta beste hainbat gauza egiteko gai izango zara. Animatu eta joan zaitetz zure inguruan dituzun beste baserri eta baserritar ezagutzera!